

Amerikar Iraultza: Hurbilketa Historiografikoa (1780-1980)

MIKEL LEJARZA

HISTORIAKO GRADUA

2020-2021 IKASTURTEA

UNAI BELAUSTEGI

HISTORIA GARAIKIDEA

Laburpena: Amerikar Iraultza (1765-1783) Estatu Batuetako historialarien ikerketa ugariren iturburu izan da. XIX. mendeko historialariek ikusten zuten askatasunaren aldeko eta tiraniaren aurkako borroka, ordea, berrikuspenean jarriko zuten XX. mendean garatuko ziren eskola ezberdinak. Amerikar Iraultza, Munduko lehenengo demokraziaren jaiotza izango duena ondorio gisa, interes handiko gaia izan da XIX. eta XX. mendeetan zehar, honi buruzko idazlanak eta ikuspegiak anitzak izanik.

Bi tradizio nagusi, aurkituko ditugu Amerikar Iraultzaren inguruko historiografian: *Whig*-a eta *Progressive*-a. Bi ikuspegi hauek kontrajarriak izango dira, bata bestearen aurka egingo duelarik. *Whig*-ek Iraultzaren interpretazio klasikoa egingo dute, ideologikoki liberal klasikoa dena, ideien garrantzia azpimarratuko duena eta gizarte koloniala homogeneo eta bateratu bezala aurkeztuko duena. *Progressive*-ak eta bere ondorengoak, berriz, Iraultzaren aspektu ekonomiko eta sozialak azpimarratuko dituzte, *Whig*-en gizarte homogeneo eta bateratua zalantzan jarriz eta haien lanetan baztertuak diren kolektiboak berreskuratuz (emakumeak, beltzak, langileak).

XX. mendean zehar bi tradizio nagusi hauen konfrontazio bat emango da, zeinak *mutatis mutandis* eskola berrietan antolatuko dira metodologia eta ikuspuntu berriak sartuz. XX. mendeko amaierarako *Progressive* tradizioa gailenduko da *Neo-Progressive* eskolaren eskutik, gaur egun arte mantenduko dena eta oraindik aurkaririk ez duenak bi mendeetan garatu den historiografia Amerikar Iraultzaren inguruan *impasse* batean geratu delarik.

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Iraultzaren azterketa prosopografikoa (1780-1980)	5
2.1 XIX. mendea: Belaunaldi Iraultzailea eta <i>Whig</i> Interpretapena	5
i. Belaunaldi Iraultzailea (1780-1815)	6
ii. XIX. mendea: Tradizio <i>Whig</i> -a (1830-1900)	7
2.2 XX. mendearen hasiera: <i>Whig</i> -en heriotza eta perspektiba berriak.	10
2.2.1 <i>Imperial</i> School (1907-1940)	10
2.2.2 <i>Progressive</i> School (1909-1945)	12
2.3 Gerra ostea: Consensus-aren jaiotza eta <i>Whig</i> -en berpizkundea	16
2.3.1 <i>Consensus</i> School (1945-1960)	17
2.3.2 <i>Neo-Whig</i> School (1959-1992)	20
2.4 Progressive-en semeak: <i>New Left</i> eta <i>New Social History</i>	22
2.4.1 <i>New Left</i> (1959-1980)	24
2.4.2 <i>New Social History</i> (1965-1985)	25
3 Ondorioak	27
4 Bibliografia	30

1. Sarrera

Lan honen bidez aztertuko dudana gaia Amerikar Iraultzaren (1765-1783) inguruko historiografia izango da 1780 eta 1980 urteen artean. Honen inguruko historiografia luzea eta askotarikoa da, bi mendetan zehar estatubatuarrek haien nazioaren jaiotzaren ikerketara jo dutelarik behin eta berriro. Ez da batere arraroa, amerikar nazioaren jaiotza eman zen heinean prozesu iraultzaile honetan, historialariak beti saiatu dira honetan haien garaiko problematikak islatzen. Gertaerak argi badaude ere, Britainia Handiaren menpean zeuden 13 koloniak Inperioaren aurka matxinatu ziren, Independentzia Gerra bat hasiz eta, azkenean, irabaziz. Hala ere, prozesu historiko honen inguruan egin diren irakurketak denetarikoak izan dira. Nork? Zergatik? edota Noren onuran historialariek planteatu dituzten galderak ditugu bi mendeetako historiografia luze batean.

Galdera hauek historialariak garaiko gizartea aztertzerantz bultzatu dituzte, iraultzaren aurrekarietan eta ondorioetan murgilduz. Halaber, garai hau aztertu duten historialariek ere haien denboraren ispirituz kutsaturik, haien ikuspegia islatu dute euren lanean (nahita edo nahi gabe). Horrela, historian zehar eman diren ideologia ezberdinen influentzia aurkituko dugu Estatu Batuetako historiako bi mendeetan zehar gai honetan aritu diren historialarietan; liberalismo klasikotik marxismora, nazionalismotik eta errepublikanistotik pasatuz. Nahiz eta ideologia hauen presentzia ukazina izan, ezin dugu hauen presentziagatik ekarpen historiografikoak baztertu, kasu gehienetan metodologiko zehatz eta zuzenean oinarriturik egongo direlarik.

Metodologiari dagokionean, lanean zehar azalduko dudanez, Estatu Batuetako Iraultzaren inguruko historiografian bi aldi bereiztu behar ditugu: aurre-akademikoa eta akademikoa; lehenengoan historialari *amateur*-ak aurkituko ditugularik, metodologia finkorik erabiliko ez dutenak eta narrazioa Historiaren gainetik gailenduko den. Aldi aurre-akademiko hau XIX. mendean emango da, *whig* interpretapena nagusi zen garaian. Honek ez du esan nahi *whig*-ek planteatzen zituzten ideiak berez okerrak zirenik, baizik eta metodologia faltak zehastasun zientifiko falta izatea eragiten zuela. Geroago XX. mendean, aldi akademikoan sartuta eta historialari profesionalen presentziarekin, *neo-whig*-ek ideia hauek berreskuratuko dituzte (partzialki) eta metodo zientifikoaren bidez aplikatuko dituzte.

Iraultzaren inguruko historiografian bi interpretapen nagusi aurkituko ditugu: liberala (*whig*) eta progresista (*progressive*). Bi interpretapen nagusi hauetatik eskola ezberdinak

sortzen joango dira, garaiko testuinguruak influentziatuak. Interpretapen liberal edo *whig*-etik *Consensus* eta *Neo-Whig* eskolak emango dira, interpretapen progresistaren aldetik *Neo-progressive* eta *New Social Left* eskolak sortuko dira. Hamarkadetan zehar, bi interpretapen hauen arteko borroka emango da, hegemonia akademian turnismo mota bat emanez, interpretapen bakoitzaren ondorengoak kontrakoaren ondorengoan aurka egingo du.

Azkenik, sarrerarekin amaituz, azpimarratuko nahiko nuke bibliografiaren eskuragarritasunaren zailtasuna. Gai honen inguruko bibliografia zabala bada ere, liburuak eskuratzea oso zaila suertatu da, atzerriko unibertsitatetako liburutegiei liburuak eskatuz ¹.

2. Iraultzaren azterketa prosopografikoa (1780-1980)

Amerikar Iraultzaren inguruko historiografiari heltzeko banaketa kronologikoa egingo dut. XIX. mendetik hasita, XX. mendeko amaierara arte sortu ziren eskola ezberdinak aztertuko ditut, haien testuingurua azalduz eta haien ideia nagusiak aztertuz.

2.1. XIX. Mendea: Belaunaldi Iraultzailea eta Whig Interpretapena

Iraultzaren inguruko lehen lan historiografikoak XVIII. mendeko azken bi hamarkadetan aurkituko ditugu jada. Lehen lan hauen ekoizleei “belaunaldi iraultzailea” (*Revolutionary Generation*) deritzogu, egile askok independentzia prozesuan edota estatu berriaren eraikuntzan parte hartu zutelarik. Geroago azalduko dudana bezala, egile hauek “haien denboraren semeak” dira, eta ondorioz haien ekoizpen historiografikoa “nation building” prozesu honek baldintzatuko du lehendabizi, eta alderdien arteko borrokek geroago.

XIX. mendean murgildurik gaudela, *Whig* interpretapenaren jarraipen luze bat emango da; kontuan hartu behar dugu mende hau oso gatazkatsua izango dela: (besteak beste) esklabotzaren auziak estatubatuarren arteko gerra zibilean amaitu zuen, gizarte estatubatuarra indarrez banatuz. Testuinguru honetan, Iraultzaren inguruko lanek “nazioa bateratzea” izango dute helburu, honen erakusle nagusia George Bancroft izan zelarik. (Hattem, 2017)

¹ Eskerrak eman nahiko nizkioke Michael Hattem-i, Harvard-eko *Early American History* ikasketetako irakasleari. Berarekin harremanetan jarri nintzen eta nire zalantzak erantzuteaz gain, bibliografia interesgarria bidali zidan, lan hau egiteko funtsezkoa suertatu dena. Gainera, bere ikasleentzako egindako “timeline” bat ere bidali zidan, AEBko Iraultzaren eskola historiografiko guztiak agertzen diren. Timeline hau nire ikerketaren oinarria izan da, bibliografia eta eskola ezberdinak ezagutuz honi esker.

Era berean, XIX. mendean zehar agertuko diren mugimendu feminista eta anti-esklabistak haien oihartzuna izango dute produkzio historiografikoan, Iraultzan parte hartu zuten emakumeen eta beltzen lanak azaleratuz. Lan hauek, “pioneroak” izango dira, tratatzen dituzten gaiak ez baitira berriro landuko, gutxienez modu sakonean, 1970ko eta 1980ko hamarkadetara arte, *New Progressive School* delakoaren agerpenera arte, hain zuzen ere.

Belaunaldi Iraultzailea (1780-1815)

Hau izango dugu lehenengo historialarien belaunaldia. Belaunaldi hau Iraultzaren garaikideek osatuko dute. Iraultza hizpide daukaten lehendabiziko lanak 1780ko eta 1790ko hamarkadetan publikatu ziren, garrantzitsuenak Iraultza beraren partaideak izanik. Honen adibide ditugu David Ramsay, Mercy Otis Warren, Ebenezer Hazard edo William Gordon. Lehenengo historialari hauek Ingalaterrako korrante historiografiko “*Whig*”-a jarraitzen zuten eta, ondorioz, haien ikuspegia Iraultzaren inguruan erabat influentziatua egongo da. Whig ikuspegiaren arabera, Historia bi indarren arteko borroka izango litzateke, alde batetik “ongia”, gobernu errepresentatiboaren aldekoak, eta bestetik “gaizkia”, Monarkia britainiar tiranoa ordezkatzeko zuena. Hortaz, garaiko iraultzaileek, korrante hau jarraituz, Iraultza bi indar hauen borroka bezala ikusiko dute, haien lanetan ikuspegi hau irudikatuz (Pilcher, 1972).

Belaunaldi iraultzailearen lanetan, ez zegoen bakarrik historia kontatzeko helburua, baizik eta Nazio berri bat eraikitzea. Honen adibide dugu David Ramsay eta bere “*History of the American Revolution*”. Lan honetan, Ramsay-ek bere lana bideratu zuen modu batean zeinean “iragan nazional bat sortu eta errepublikanismo iraultzailea eta batasun nazionala sustatzen zituen” (Messer, 2002. 210). Izan ere, Ramsay-ek Iraultza eta Estatu Batuen sorrera gizateriaren erredentziorako aukera bezala ikusten zituen². Bere arabera, Errepublikaren lehen urteetan “misio” honen arrakasta jokoan zegoen eta amerikarren moralara berreskuratu behar zen (Morgan, 1965. 19.).

Ramsay-k, bere belaunaldiko beste egileek bezala, lana ez zuen bakarrik historiaren kontaketa mugatzen, nazio berriaren memoria kolektiboaren eraketan paper garrantzitsua jokatu zuten, “nation building” delakoan, alegia. Michael Hattem-ek bere *Past and Prologue* (2020) liburuan azpimarratzen duen bezala, nahiz eta oso hedatua egon

² Ramsay ez da bakarrik izango pentsamendu honetan, mugimendu bat izango da, egile askok osatuko dutena. Egile hauek “Spread Eagle patriots” bezala ezagutuak dira.

amerikarren artean “iraganarekiko desinteresaren” ideia (honen jatorria Iraultzan egondako “Mundu zaharreko” historiarekin apurketan dago) Iraultzaren garaikideek “iragan kolektibo” bat sortzen hasiko ziren. Iragan amankomun honen eraketak rol garrantzitsua izango du Estatu Batuetako historia goiztiarrean, lehenengo nazionalismo bat sortzen lagundu zuelarik (Hattem, 2020).

1780 eta 1790 hamarkadetako ekoizpen historiografikoak kutsu nazionalista handia izan bazuen, XIX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan idazketa historikoa polarizatuko da bi alderdi nagusien baita: Federalista eta Demokrata-Errepublikanoa. Bi hauen arteko borrokek Iraultzaren inguruko kontaketa *kutsatu* zituen. Honen adibide ditugu Mercy Otis Warren errepublikazalearen hiru liburukiko *History of the Rise, Progress and Termination of the American Revolution* eta John Marshall federalistaren bost liburukiko *The Life of George Washington* (Hattem. 2017).

XIX. mendea: Tradizio Whig-a (1830-1900)

Esan bezala, Whig historiografiak Britainia Handian du jatorria, honen funtsezko ideia ongia eta gaizkiaren arteko konfliktoa delarik. Tradizio hau kolonoen artean hedatuta zegoen jada Iraultzaren lehen aurrekariak baino dezente lehenago. Bai Iraultzaren garaikideek zein XIX. mendeko estatubatuarrek, haien Independentzia prozesua Tirania britainiarraren aurkako eta amerikar askatasunaren aldeko borrokatzat ikusten zuten (Ray, 2001: 33). Are gehiago, ez zen Tirania zapaltzeko borroka bat izan, Tirania ekiditeko baizik. Kolonoek eurek bazekiten euren egoera Europako beste herrialdeetako mendekoen askoz hobea zela, hortaz, haien guda ez zen izan gobernu tiraniko baten kontrakoa, honen ezarpenaren beldurraren emaitza baizik (Wood, 1966: 5).

Epe honetako historialari eta lan garrantzitsuenak aztertu baino lehen, beharrezkoa suertatzen da kontuan hartzea epe aurre-akademiko batean aurkitzen garela. Hau da, garai honetan egingo diren lanak ez dute metodologiarik jarraituko, haien egileak ez dira gaur egun ezagutzen ditugun historialari profesionalak, historiazaleak baizik. Gainera, hauek normalean gizon zuri aberatsak izango dira, lanak eta ikerketak euren poltsikotik ateratako diruz ordainduko dituztenak eta “Historia” *hobby* bat bezala ikusiko dutenak. Hauen adierazle nagusia George Bancroft izan zen, zeinak 75.000-100.000 dolar inbertitu zituen bere lanetan (Hofstader, 2012: 28).

Kontuan hartu behar dugun beste aspektu bat zera da, ezin dugula XIX. mendea, nahiz eta oro har *whig* ikuspegia hegemonikoa izan, aldi bateratu bat bezala ikusi. XIX.

mendearen lehenengo zatia Bancroft-ek domeinatuko du, oraindik “aldi aurre-akademikoa” izanik. Dena den, XIX. mendearen bigarren zatian eta mendearen amaierara hurbiltzen joan ahala, Historiaren profesionalizazioaren hastapenak ezagutu ziren, lan eta historialari akademikoak agertuz.

George Bancroft-ek Estatu Batuetako lehenengo historia handia idatzi zuen, bere liburu seriean argitaratua *History of the United States, from the Discovery of the Continent* (1854-1878). Bancroft-ek, bere garaiko erromantikoek bezala idatziko du, baina kutsu filosofiko eta trszendentalista gehituz. Bere arabera, *whig* bat bezala, “historiak lezio funtseko bat irakasten du, gizakiaren joera saihestezina askatasunerantz eta beraz, honen helmuga demokrazia eta askatasuna bazen, zergatik ez ziren Estatu Batuak honen adibide nagusia? (Hofstader, 2012: 32). Bancroft-ek sinisten zuen askatasuna naturalki hazi zela Estatu Batuetan eta honen historia Ingalaterraren partetik askatasun hori zapaltzeko sahiakeraz betea zegoen, Independentzia botere zapaltzaile honekiko askapena izanik. Bere arabera askatasuna ez zen Ingalaterrarekiko zerbait urruna, baina Ingalaterran garatzeko zailtasunak aurkitu zituzten, eta ondorioz, ingelesek hobereenek (askatasuna maite zutenak, noski) Estatu Batuetara heldu zirenak eta lur berriak kolonizatu zituztenak izan ziren³. Hortaz, Estatu Batuen independentziaren “saihestezintasuna” aurkezten digu Bancroft-ek (Morgan, 1958: 1-2). Bancroft-en lanak ere kutsu erlijioso eta teologiko markatua izango du, probidentziaren⁴ inguruan idatziz (Hofstader, 2012: 32). Iraultzarako ibilbidea hurrengo hitzen bitartez definitu zuen: “The movement of the divine power wich gives power to the universe, and orde rand connection to events” (Beard, 1913: 1).

Bancroft-en lana, argi ikusten denez, guztiz partziala zen, kutsu nazionalista handikoa, eta joera *Jacksoniano* argia islatzen duena. Andrew Jackson (7), AEB-tako lehendakaria izan zen 1830ko hamarkadan. Gehiegirik sartu gabe bere presidentzian, bere aurretik Estatu Batuak zuzendu zuen *establishment* politikoaren aurka egin zuen. Botere politiko hori Fundaziotik iraun zuen “aristokrazia politiko” bat osatzen zuten Alderdi Federalista eta Errepublikano-Demokratikoaren inguruan antolaturik. Alderdi hauek ez zuten sistemaren demokratizazio bat aurrera eramane eta Andrew Jackson lider populista eta demokratizatzaile bezala agertuko da. Bere mandatuan erreforma serie batzuk aurrera

³ Honek gogorazten dit estatubatuar Murray N. Rothbard libertarioaren *Conceived in Liberty* (1975), adierazten diguna zein puntura arte *Whig* perspektiba oraindik imaginario estatubatuarrean, eta akademian 1960ko hamarkadako *Neo-Whig*-en agerpenarekin, bizirik mantentzen den.

⁴ Ikus dezakegu nola oraindik mantentzen diren Belaunaldi Iraultzailearen ideia nagusiak, *whig* ikuspegia ez ezik ere Ramsay-en eta Spread Eagles Patriots-en erlijiositate sakona.

eramango dira “Jeffersonyan Democracy” epeari hasiera emanik. Bancroft-en espiritu jacksonianoa bere lanetan antzematen da, demokrazia, bere lanetan, askatasunarekin batera gizakiaren azken helmuga delarik (Hofstader, 2012: 31-33; Wright, E. 1968: 50).

Esan dudan moduan, Bancroft epe aurre-akademikoaren parte zen eta bere lanek zehastasun falta handiak eta gabezia nabarmenak erakusten dituzte. Nahiz eta lehen mailako iturriz beterik egon, ez zuen beti monetaren bi aurpegiak aurkezten, iturriak bere ikuspegiaren onurarako erabiliz inolako erreparorik gabe. Esan bezala, ez zegoen inolako metodologia zientifikorik, Historia narrazioaren menpean zegoelarik eta ez narrazioa Historiaren menpean. Charles Beard-ek, Bancroft, mistifikazio historikoaren arketipo bezala izendatu zuen, esanez honek beti aurkezten zuela Historia ibilbide jarraitu eta oso bat bezala bere teoria sostengatzeko eta ez gertaera espezifikoko batzuetan. Hortaz, Bancroft-en ideia Iraultzaren inguruan eduki teorikoak enpirikoak baino zituen (Morgan, 1958: 2; Hofstader, 2012: 35; Beard, C. 1913: 2).

Bancroft-en garaikideak izango diren beste historialari batzuk ez dute eskola bat osatuko eta ez dute interpretapen berririk aurkeztuko, baina Bancroft-ekin alderatuz (eta honekiko alderatzea izango da historialari hauen helburua) Historia askoz ere “intelektualago” bat egiten saiatuko dira. Historialari hauek *new englander* izena hartuko dute. Historialari hauek Bancroft-en alternatiba bat aurkezten saiatuko dira, alternatiba intelektuago eta akademikoago bat alegia. Historialari hauek Ingalaterra Berriko klase intelektualaren parte izango dira, oso kontserbakorrak kasu askotan. Richard Hillberth-ek, Bancroft-en Estatu Batuetako historiari aurre egiteko, sei bolumetako liburu-seriea idatzi zuen 1849 eta 1852 urteen artean. Liburu hauetan Hillberth-en Iraultzaren inguruko “mitoak” amaitzen saiatuko da. Liburuaren sarreran honela dio: “It is due to our fathers and ourselves, it is due to truth and philosophy, to present for once on the historic stage, the founders of our American nation unbedaubed with patriotic rouge, wrapped up in no fine-spun cloaks of excuses and apology” (Hofstader, 2012: 34). Eta bide horretan idatzi zuen bere lana, Ingalaterraren eta kolonoen arteko guda eliteen arteko borroka bezala aurkeztuz eta konstituzioaren adopzioa Charles Beard⁵ berak egingo zuen terminoetan aurkeztuz. Charles Beard berak, bere *The economic interpretation of the Constitution of the United States* (1913) aitortu zuen XIX. mendeko historialari batzuek “iturriak hobeto zainduko

⁵ Geroago azalduko dudanez, Charles Beard historialari *progressive* bat izan zen, konstituzioaren inguruko lan bat idatziko duena.

zituztela eta analisi oso zehatzak egin zituztela” (Beard, 1913: 4). Honegatik, ziur aski, Hillberth-en lanak ez zuen arrakastarik izan publiko orokorrean (Hofstader, 2012: 37-38).

Gerra Zibilaren osteko aldian eta *Reconstruction Era*-n zehar azpimarria da historiografian eman zen kontserbadurismoa. Nahiz eta aldaketa sozial eta politiko sakoneko aldia izan Berregituraketa, honek ez du inpaktu handirik izango. Izan ere, aldi nazionalista bati hasiera emango dio (Hofstader, 2012: 39-40). Testuinguru honetan eskola teutonikoa agertuko da, zeinak defendatzen zuen anglo-saxoiak tribu germanikoen ondorengoak zirela. Tribu hauek Ingalaterra konkistatzean gobernu forma “askeak” ezarri zituzten, eta “arraza” honen ondorengoek Amerika kolonizatuko zuten, haien gobernu mota ezarriz. Prozesu historiko honen “fruitua” Estatu Batuetako konstituzioa izango zen (Beard, 1913: 3). Nahiz eta teoria hau guztiz arrazista eta nazionalista izan, eskola honetako historialariak jada zorrotasun zientifikoa zuten eta mundu akademikoaren hastapenetan aurkitzen ziren (Hofstader, 2012: 40; Beard, 1913: 3).

Estatu Batuetako XIX. mende luze eta gatazkatsuan zehar, ikusi dugu nola *Whig* interpretapena bere indarra galtzen joango den, XIX. mendeko bigarren erdian zehar pixkanaka pixkanaka alde batera geratuz. Hala ere, mende amaierara arte mantenduko zen, baina mende berriaren agerpenarekin bi eskolek tradizio luzeko interpretapena erailiko dute. Erailketa honen arduradunak izan ziren, *Imperial* eskola lehenengo eta *progressive* eskola geroago.

2.2. XX. MENDEAREN HASIERA: Whig-en heriotza eta perspektiba berriak.

XIX. mendearen amaiera eta XX. hasieraren arteko epean, historiografia “profesionalizatu” egingo da. Profesionalizazio honek ondorio sakonak izango ditu bai Historiaren lanketan orokorrean, metodologiaren ezarpenarekin eta metodo zientifikoaren aldarrikapenarekin besteak beste, bai Estatu Batuetako Iraultza eta fundazioaren inguruko literaturan. Beste “borroka” historiografikoetan bezala (Lucien Fevre-k deituko zituen bezala, *Combats pour l’histoire*), XX. mendeko hamarkadetan agertu ziren bi eskola nagusiak, *progressive* eta *imperial*, aurreko *whig* interpretapenaren aurkako erreakzioak izango dira, mende luze batez mantendu ziren ideia eta paradigmak kolokan jarritz.

Imperial School (1907-1940)

Eskola honetaz hitz egiterakoan, jada eskola akademiko batez hitz egin beharko dugu. Jada ez dira historialari *amateur*-ak izango XIX. mendekoak bezala, historialari profesionalak ziren Unibertsitateetan irakasleak izango zirenak. Eskola honek ez zuen Iraultzan askatasunaren eta Tiraniaren arteko borroka edo klaseen arteko borrokaren ondorio bezala ikusiko, beste eskolekin alderatuko duena eta berezia bihurtuko duena, baizik eta soberanien artekoa, britainiarra eta koloniala (Wright, E. 1968: 50).

Eskola Imperialaren lehenengo aurkezlea mundu akademikotik at zegoen historialari bat izan zen, George Louis Beer⁶. 1907. urtean *British Colonial Policy 1754-1765* liburua argitaratuko zuen, zeinean defendatuko zuen britainiarren portaera Zazpi Urteko Gudan (1757-1764), konstruktiboa eta arduratsua bezala definituz, kolonoena kritikatuko duelarik. Kolonoek, Beer-en arabera, leialtasun gutxiz ekin zuten gerran, behin gerra amaituta, eskerrak emateko gai ere izan gabe eta pixkanaka pixkanaka independentziara mugituz, ez askatasun politiko eta zibilak mantentzeko (whig-ek defendatzen zuten moduan), baizik eta Inperioaren barruan ez zutelako haien interesen alde egiteko aukerarik⁷. Hurrengo lanetan, *The Origins of the British Colonial System 1578-1660* (1908) eta *The Old Colonial System 1660-1688* (1912), kolonizazioaren lehenengo mendetara joko du, garai honetan whig-ek (Bancroft buru) Amerikan askatasuna eta Ingalaterra tirania ikusten zuten bitartean, Beer-ek Amerikan arduragabetasuna eta Ingalaterra estatu-zentzua ikusten zuen (Morgan, 1958: 3).

Beer-en lanak bere *Anglo-American* batasunaren sentimenduen eraginpean egon arren, oinarri akademiko handia zuen eta bere lanen ikuspegia historialari kolonial handi batek jarraituko zuen, Charles McLean Andrews. Interpretazio Inperiala akademian sartu zen. Andrews-ek, Beer bezala, Iraultza aurreko epeari erreparatu zion, historialari belaunaldi oso bati historia koloniala historia inperiala bezala irakatsiz. Historia koloniala Londreseko ikuspuntutik irakasten zuen, Andrewsen eskoletatik pasatzen ziren ikasleek Iraultzara heltzen zirenean Britainiar aldea begi-onez ikusten zutelarik. Navigaton Act-ak (1733-1773) jada ez ziruditen opresio ekonomiko mekanismo bat baizik eta bidezko tresna bat Zazpi Urteko Gerran egin ziren esfortzuak konpentsatzeko eta “Admiralty Courts”-ak ez ziren tiraniaren tresnak merkataritza funtzionatzen jarraitzeko mekanismoa bihurtuz. Andrews-ek ikuspuntu koloniala zein britainiarra ulertzen zituen,

⁶ Tabako merkataria zen profesioz New York-en. Hala ere, historia ikasi zuen Columbiako Unibertsitatean.

⁷ Honen adibidea dugu 1763ko Royal Proclamation-a, Apalachetatik mendebalderantz zeuden lurraldeak kolonizatzea debekatzen zuena.

ekidistantziarekin jorratuz gaia. Berak idatzitako lanen artean *Colonial Background of the American Revolution* (1924) eta *The Colonial Period of American History* (1934-38) zeinetan Ingalaterraren merkataritza eta politika kolonialak kontuan hartuko dituen (Morgan, 1958: 4).

Andrews-en ikasleek Britainia Handiaren politika kolonialak aztertzen jarraituko zuten, hauen artean Leonard W. Labaree eta Lawrence H. Gipson nabarmenenak izango direlarik. Labaree-k bere *Royal Government in America* (1930) liburuan gobernadoreen eta asanblada kolonialen arteko harremanaren inguruan idatziko du. Gipson, bere aldetik, ikerketa handiago bat egingo du, Independentziara bideratuko duten gertaerak aztertuz ikuspuntu inperial batetik. *The British Empire Before the Revolution* (1936) liburuan independentzia aurretiko gertaera ezberdinak aztertuko ditu, esan bezala. Zazpi urteko gerraren inguruan Beer-en antzeko tesia mantenduko du, defendatuz gerra amerikar kolonietan britainiarrek irabaziko zutela haien diru eta odolarekin. Are gehiago, *The Coming of Revolution 1763-1775* (1953) liburuan britainiar gobernuaren politika fiskala kolonietan defendatuko du, ez bakarrik legitimoa zelako gerran egindako esfortzuen konpentsazio gisa, baizik eta kolonietako presio fiskala oso txikia zela azpimarratuko du, Ingalaterrakoarekin konparatuz⁸ (Morgan, 1958: 4-5).

Imperial school, esan bezala, lehenengoa izango zen bai ordura arte hegemonikoa zen ikuspegia kolokan jartzen bai lehenengoa eskola “akademiko” bat izaten. Hala ere, honek izan zuen eragina ezin da inolaz ere konparatu hurrengoak izango duenarekin, *Progressive* eskolak historiografia estatubatuarra orokorrean zein Iraultzaren inguruko historiografia guztiz aldatu baitzuen.

Progressive School (1909-1945)

Iraultzatik gaur egun arte eman diren interpretapen guztien artean, *progressive* eskolak interpretapen iraultzaileena proposatuko zuen. Beste eskolek ideiak Iraultzaren eta ondorengo Errepublikaren fundazioaren zentroan jartzen badute, *progressive*-ek faktore ekonomikoak jarriko dituzte bilakaeraren erdigunean. Eskola hau anomalia bat izango da amerikar fundazioaren historiografian. Alan Woods-ek esan zuen moduan, eskola honen aurretik eta ondoren sortu ziren eskoletan ez zen ohikoa izan gizarte gatazka edo klase borroka historia estatubatuarraren zentroan jartzea (Wood, 1966: 8). *Progressive*

⁸ Poulson-en arabera, *Economic History of the United States* (1981), kolonoek batezbeste 0.25\$ ordaintzen zituzten urtero zerga zuzenen bidez. Metropolikoek aldiz, 5.5\$ urtero. (Poulson, 1981: 23)

Eskolaren arabera, eta aurreko *whig* tradizioarekin kontrajarriz, ez dituzte ideiak Iraultzaren zentroan jarriko, baizik eta interes ekonomikoak eta aldaketa sozialak (Gibson, 2009: 7).

Interpretapen honen garapena ondo ulertzeko ere kontuan hartu beharko genuke jada ordurako zegoen azpiegitura akademikoa. Aurreko historialariek ez bezala, *progressive* historialariek eskola bat osatuko dute. Hau puntu oso garrantzitsua izango da, XIX. mendeko historialariek konparatuta, metodologia baten finkapenerako eta eskolak defendatzen dituen ideien erreproduktzioarako (unibertsitateko ikasleak, konferentziak, tesi doktoralak etb. *Imperial* eskolan ikusi dugun moduan Andrews-en ikasleekin) funtsezkoa suertatuko baita. Horrela, ikusiko dugu nola zenbait unibertsitate eskola honen zentru bihurtuko diren, historialari nabarmenenak hoietan lan eginez.

Eskola honetako historialari nagusiekin eta haren garapenarekin hasi baino lehen, honek planteatuko dituen ideia nagusien inguruan arituko naiz. Jada esan dudana bezala, eskola honetako historialariak ez dute haien interesa ideietan jarriko, baizik eta faktore ekonomiko eta sozialetan, Historia Soziala garatuko dute batik bat (Gibson, 2009: 9-10).

Eskola honen lehenengo aurkezlea J. Franklin Jameson dugu. Nahiz eta bere “The American Revolution considered as a social Movement” hitzaldiak 1925ean eman eta hurrengo urtean argitaratu, Jameson berak Charles Beard-i onartu zion hitzaldi haiek 1895ean Columbus Unibertsitatean talde txiki bati eman zion hitzaldian oinarriturik zeudela (Young, 2011: 20). Hau da, Jameson-ek zioena egia izatekotan, bera izan zen interpretapen eskola honetako lehenengo ordezkaria. Hala ere, ez zuen izan oihartzunik aipatutako 1926ko argitalpena arte. Bai, ordea, izan zuten oihartzun handia 1900ko eta 1910ko hamarkadetan zehar hiru historialarik, zeinen lanek oinarria jarri zuten lau hamarkadez hegemonikoa bihurtuko zen *Progressive* eskolan, Charles Beard, Turner eta Parrington. Historialari hauen lanak XX. mendearen hasieran, interpretapen eskola berri honi hasiera eman zioten. Hiru historialari hauek eta Jameson-ek, besteak beste, *Progressive* eskola honen lehenengo belaunaldia osatuko dute, belaunaldi aurre-Jamesoniarra deitu dezakeguna, haien ekoizpen historiografikoa Jameson-en aipatutako lanarengatik influenziatua ez zegoen heinean (Young, 2011: 34).

Lehenengo belaunaldi honen ikuspegia ulertzeko, bere testuingurua ulertzea funtsezkoa suertatzen da. XIX. mendearen amaieran, azken hamarkadan zehazki, Beard, Turner eta Parrington-ek 20-30 urte zituztela, Estatu Batuak transformazio sakon batean murgilduta

zegoen, industrializazioa, inmigrazio masiboa, “frontier”-aren desagerpena eta Estatu Batu landatarraren heriotza protagonistak zituelarik. Testuinguru honetan hazi egingo ziren historialari belaunaldi berriak aspektu ekonomikoekiko interesa izateko joera izango zuen, bai eta klase menderatzaileekiko pentsaera kritikoagoa ere (Hofstader, 2012: 48-50). Hauek izango dira, hain zuzen ere, *progressive* interpretapenaren printzipioak, ikuspegi sozio-ekonomiko eta ordura arte garatu ziren ideia *whig* kontserbadoreak zalantza jartzea.

Lehenengo belaunaldi honetako lanen artean pisu handikoak izan ziren Charles Beard eta bere emaztea Mary Beard-en lanak, ez bakarrik mundu akademikoan izango zuten eraginagatik, baita publiko zabalean izan zuen ohiartzunagatik, hurrengo hamarkadetako historialari askotan influentzia handia edukiz. Izan ere, Beard bikoteak 30ko eta 40ko hamarkadetan idatzi zituen liburuek arrakasta handia izan zuten irakurleen artean, *The Rise of American Civilization* (1927) eta *A Basic History of the United States* (1944) arrakasta handiko izanik eta ehundaka milaka kopia salduz (Cott, 1990: 275; Young, 2011: 35). Charles Beard-eren lehenengo ikerketak konstituzioaren inguruan zentratu ziren. *An economic interpretation of the Constitution of the United States* (1913) liburuan, Beard-ek Iraultzaren ondorio politikoak, baina bereziki sozio-ekonomikoak aztertu zituen. Liburu honen tesiaren arabera, konstituzioaren idazketan pisua interes sozio-ekonomiko eta harremanak izango zituzten, ez ideiek (Woods, 1966: 7). Ilustriazioaren ideiak eta Locke-ren liberalismoaren ideian, zeinei *whig*-ek garrantzia handia eman zieten, interes ekonomikoen arrazioanalizazioak izango lirateke Beard-en ustez (Gibson, 2009: 7.). Aipatutako hurrengo liburuetan, bere emaztearekin egindakoak, Beard-ek ideia hau garatzen jarraituko zuen, Iraultza estatubatuarra transformazio politiko, sozial eta ekonomiko sakon baten iturri bezala aurkeztuz.

Turner eta Parrington, progressive historialarien artean nagusienak baziren ere, ez zuten Iraultza prozesuari buruz gehiegirik idatzi, batez ere lehenengoak zeinak ez zuen inoiz honi buruz ezer ez argitaratu. Hala ere, kontuan hartu behar dugu ordurako Historia unibertsitateetan irakasten zela eta Turner zein Parrington irakasleak zirela. Honi esker haien ikasleen doktoretzen gainean eragin handia izango zuten (Young, 2011: 35-36; Hofstader, 2012). Honen eredu dugu Carl L. Becker, zeinak *The History of Political Parties in the Province of New York* (1909) liburuaren hitzaurrean Turner-en iradokizun batetik aterako zuela bere lanaren ideia.

Carl L. Becker garrantzia handia izango du Progressive-n artean Iraultzaren inguruko ikerketan. Izan ere, Beard-ek bere lana oinarritzat hartu zuen bere konstituzioaren inguruko lanean. Jada aipatutako liburuan, dualitatearen tesia defendatuko du; honen arabera Iraultzan aldi berean bi borroka emango ziren, bata Britainia Handiaren kontrakoa eta bestea elite aristokratikoaren eta erradikalen artekoa. Carl Becker-ek bere *The Declaration of Independence: A study in the History of political ideas* (1922) liburuan ez ditu ideien eragina Iraultzaren zentruan jarriko, Beretzat hauek tresna bat besterik ez ziren, askotan propaganda hutsa izanik. Propaganda hau ez zegoen bakarrik barrurantz egin, hau da, kolonoak konbentzitzeko, baita haien legitimitatea nazioartean aldarrikatzeko, Independentzia Aldarrikapena (1776) azken helburu honetara bideratuta zegoen hain zuzen Becker-en arabera (Wood, 1966: 8-9). Lehenengo belaunaldiaren beste historialari garrantzitsu bat Schlesinger izango da, bera izango da aipatutako propaganda hau aztertuko duena; honen arabera, propaganda masa mobilizazio tresna bezala erabiliko zen, batez ere “anti-britainiar” sentimendua areagotzeko⁹ (Young, 2011: 36).

Lehenengo historialari belaunaldi honek *progressive* eskolaren oinarriak eraikiko zituen, baina Jameson izango zen Beard, Turner, Parrington, Becker eta Schlesinger-en lanen arteko “zubi bat eraikiko zuena” (Young, 2011: 34). Becker eta Schlesinger-en Iraultzaren jatorriak eta Beard-en Iraultzaren ondorioak batuko ditu alegia. Argitalpen hau iraultzailea izango da, ez hainbeste aurkezten dituen ideiangatik (azaldu dudanez jada planteatuak zeudenak) baizik eta izan zuen eraginagatik, batez ere historialari gazteengan, 30ko eta 40ko hamarkadetan hainbat tesi doktoralen agerpenarekin, “Jameson Heuristics” deituko zitzaiena. Honi gehitu behar genioke Columbia Unibertsitatea *progressive* historialarien zentrua bihurtuko zela, non Beard-ek lan egingo zuen eta “New History” garatuko zen. Columbia Unibertsitatea Iraultzaren inguruko lan askoren ekoizpen-zentrua bihurtuko da, bigarren belaunaldia hemendik ateraz (Young, 2011: 37).

Bigarren belaunaldi honek Iraultzaren aspektu konkrituagoak aztertuz joango zen: nekazal politikak, konfliktu agrarioa jabe eta maizter artean Iraultzan zehar eta loyalist-ei konfiskatutako lurren banaketa, gerraosteko aldaketa ekonomiko eta sozialak eta emakumeen papera, besteak beste. Lan guzti hauen ekoizpenak ekarriko du 1930ko hamarkadako amaierarako eta hurrengo hamarkadan zehar, Iraultzak ekarriko zituen transformazioen inguruko hainbat sintesi egitea, zeinak lehenengo belaunaldiko

⁹ Honen adibide argia dugu “Boston massacre” (1770) inguruan egin zen propaganda, britainiar soldaduen eta Bostoneko jendearen arteko konfrontazio bat aprobetxatuz.

historialarien lanak baino oinarri enpiriko zabalagoa zuten (Young, 2011: 38). Bi izango ziren belaunaldi berri honen historialari nabarmenenak: Curtis P. Nettels eta Merle Curti.

Curtis P. Nettels-ek bere *The Roots of American Civilization* (1938) liburuan lehenengo analisi sozioekonomikoa egingo zuen bai gerraurreko gizarte kolonialarena bai Iraultzaren jatorri eta ondorioena. Bere aurrekoek ez bezala, bi alderdi bereiztuko ditu: bata “demokratikoa” eta bestea “kontserbadorea”. Iraultza eta Estatu Batuen lehenengo urteetan, bi alderdi hauek konfliktoan egongo dira auzi ezberdinen inguruan, lurbanaketa, dibisaren inguruan eta gobernu estatal berriak. Honen arabera, alderdi kontserbakorra alderdi demokratikoa erabiliko du britainiar eta *loyalist*-en interesen aurka egiteko, amaieran kontserbakorrak egoera berriaz profitatuz eta boterea eskuratuz. (Young, 2011: 39)

Merle Curtik, bere aldetik, *The growth of American Thought* (1943) liburua idatzi zuen. Eskolako beste historialariek ez bezala, Curti-k ideien inguruan ikertu zuen, herri-xehearena hain zuzen ere. Lehen mailako iturriak erabiliz, jende korrontearen ideien garapena aztertuko zuen Iraultza zehar. Bere arabera, espiritu iraultzailearen hedapen bat egon bazen ere, hau oztopatua ikusi zen erreakzio kontserbakor batengatik. Honek eragin zuen mundu intelektualaren “demokratizazioa” etetea (Young, 2011: 40).

Bigarren belaunaldi honek aro oso bateko lanak sintetizatzea lortu zuen, baina ez zuen lortu tradizioa jarraitzea. 1940ko hamarkadako gertaerek, Bigarren Mundu Gerrak eta Gerra Hotzaren hasiera, eragin handia izan zuten garaiko historiografian. Gerra osteko testuinguruan, *Consensus* historiografia gailenduko zen, *Progressive* historiografiaren funtsezko ideiak zalantzan jarriko dituenak eta Gerra Hotzaren testuinguruan kutsu nazioanalista oso markatua izango duena. Ordurako, Columbia ez zen *Progressive* eskolaren zentru neurgikoa, Wisconsin-eko Unibertsitatea baizik, eta hemen izango da zehazki non *Progressive*-n azken erresistentzia geratuko zen, hurrengo hamarkadetan *Progressive*-n ideiak bizirik mantenduz, geroago, ikusiko dugunez, berriro indartu arte (Young, 2011: 40).

Beraz, nahiz eta *Progressive* eskola *mainstream*-etik atera, hirugarren belaunaldi bat aurkituko dugu, Wisconsin-eko Unibertsitatean garatuko dena, Merrill Jensen-en inguruan. Jensen progressive interpretapena jarraituko du hiru hamarkadetan zehar, progressive espiritua latente egonez 1960ko hamarkadara arte, ezkerreko korronte historiografiko berriak agertuko direnean: New Left eta New Social History.

2.3. Gerra ostea: Consensus-aren jaiotza eta Whig-en berpizkundea

Bigarren mundu gerraren ostean eskola berri bat agertuko zen eszenatoki historiografiko estatubatuarrean. Eskola berri hau ulertzeko bere testuingurua kontuan hartu behar dugu. Gerra mundiala amaiturik AEB bere burua aurkitu zuen munduko potentzia bezala, bere aurrean beste superpotentzia bat zuelarik, mehatxu militar bat ez ezik mehatxu ideologiko bat suposatzen zuelarik ere. Sobietar Batasunak errepresentatzen zituen “ideiak” eta gobernu modua Estatu Batuetakoen antagonikoak ziren. Testuinguru honetan, AEB “Consensus” garaian sartuko da gizarteko atal guztietan inposatuko dena, baita ere historiografian. Are gehiago, garai hartan hedatu zen olatu “anti-marxista” ere izan zuen eragina akademian, *Progressive School*-aren historialarien artean, Merle Curti-k (geroago ikusiko dugunez *New Social History* eskolaren historialari nabarmenenetarikoa) hau errepu diatu zuelarik, besteak beste (Young, A. 2011: 49).

Eskola berri honek, garaiko sentimendua jarraituz, *Progressive*-k proposatzen zuten “konfliktozko historia” alde batera utziko zutelarik eta amerikar guztiek partekatzen zituzten liberal baloreetan (demokrazia, askatasuna eta berdintasuna) eta estatubatuar historian zehar mantendu zen erdi-klaseko estruktura defendatuz. Zentzu askotan atzera pauso bat izan zen, XIX. mendeko ideiak berreskuratu ziren heinean. Gauetik egunera AEB-tako historiatik konfliktoa kendu eta kontsensua ezarri zen (Gibson, 2009: 23).

Geroago azalduko dudana bezala, testuinguru honetan garatuko den klima intelektualak progressive-ak lurperatu zituen eta *Whig* interpretapena berreskuratzea ekarriko zuen. Berpizkunde honetan *Neo-Whig* eskola sortuko da.

Consensus school (1945-1960)

Iraultzari dagokionean, *Progressive*-n irudikapena kolokan jarriko dute, haientzako Iraultzako gizartea ez zen gizarte estratifikatu bat klase eta interes taldeen artean, baizik eta gizarte demokratiko eta igualitario bat zela defendatuko dute. Aurreko eskolako teoria nagusiak baztertuko dituzte, hala nola Carl Becker-en Iraultzaren dualitatea eta Beard-en interes ekonomikoen garrantzia (Gibson, 2009: 15). Izan ere, egile batzuk interpretapen eskola hau ez dute “consensus eskola” bezala definituko, anti-progressive eskola bat bezala aurkeztuz. Hauen artean Peter Novick aurkituko dugu, “counter-progressive” izendatuz 40ko eta 50ko hamarkadetan garatu zen historiografia, hots, eskola berri honen izaera suntsipenean oinarrituta egongo zen eraikuntzan baino (Young, 2011: 47).

Novick berak salatuko du garai hartan (1940ko hamarkadako amaieran eta 1950ko hamarkadaren hasieran, Gerra Hotzaren hasieran alegia) egingo den ideia batzuen “jarraipena”, bereziki ideia komunisten aurka, atzerrian zein etxean. Historialariaren “ardura sozialari” apelatu zen, gerrarako dei bat bezala. 1920ko eta 1940ko hamarkaden artean egin zen historiografia salatu egin zen “zeinean historialariek herriari haien heroiak kendu zizkioten”. (Young, 2011: 47-50). Testuinguru honetan ulertu behar dugu eskola berri honen agerpena.

Eskola honetako historialariek kontsensuan egingo dute enfasia, konfliktoa baztertuz, aurreko historiografiaren aurka eginez. Haien arabera, esperientzia historikoa konponbide terminoetan ulertu behar da eta ez konfliktoan progressive-ek planteatzen zuten moduan. Beraz, amerikar gizarte goiztiarrean eta Iraultzan printzipio hauetan oinarrituko dira, “common porpouse”-a testuinguru historiko horretako *latemotiv*-a izango delarik (Gordon, 1989: 672). Eskola honek garatuko duen beste ideia garrantzitsu bat “amerikar apartekotasuna” izango da. Ideia honen arabera sozialismoa ez da inoiz estatubatuar gizartean egon bere fundazioan garatu ziren ideiegatik, ideia hauek printzipio liberaletan funtsa izango zutelarik. Pertzepzio honetatik ere garatuko dira frantziar iraultzaren eta estatubatuar iraultzaren arteko konparaketaren inguruko lan ezberdinak, estatubatuarra gioraipatuz, ez baitzuen frantziarra bezala izuan degeneratu (Gibson, 2009: 14-15).

Eskola hau, beraz, progressive eskolak suposatu zuen aurrerapenen kontrako erreakzio bat izango da. Aurreko hamarkadetan garatu ziren lanak kolokan jarriko dituzte, kritika gogorak eginez. Eskola hau proiektu errebisionista bat izango den heinean, bere ekoizpen historiografikoa aurreko eskolaren errefutazioak izango dira eta ez lan genuinoak, punturaino non ideia berriak planteatu baino ideia zaharrak berreskatatuko dituzten. Izan ere, *Consensus* eskola honen emaitzetako bat 1960ko hamarkadan eratuko den eskola *Neo-Whig*-a dugu. (Young, 2011: 47).

Progressive eskolari egingo dieten kritika errepikatu bat “presentismoa” izango da. Egile hauen arabera, *Progressive* historialarien bekatu nagusia haien agenda politikoa sartzea izango da. Kritika nagusiak Beard eta Becker-en zentratuko ziren nagusiki. Hiru izango ziren kritika nagusiak gerra osteko lehenengo urteetan bi egile hauen aurka: lehenengoa, errelatibismo morala, totalitarismoen aurkako testuinguru batean posizio hau ez zen begi onez ikusten; bigarrena Beard-en isolamenduaren aldeko posizioak ere kritika handiak jasotzea ekarri zuen, kasu honetan ezkerretik, liberalak eta anti-faxista ezkertiarak internazionalismoaren alde baitzeuden; hirugarrena, *Progressive* eskolak jarraitzen zuen

determinismo ekonomikoak, Beard-en lanean oso markatua zegoena, marxismoarekin lotzea ekarri zuen ideologia hau jarraitua eta baztertua zegoen testuinguru batean, azaldu dudana bezala (Young, 2011: 50-51).

Garai hartan argitaratuz joango ziren lan asko historialari *Progressive* handien tesien errefutazioak izan ziren. 1950ko hamarkadan zehar plazaratu ziren lanek hauen zimenduak suntsituz joango ziren, edo hori zen garaiko inpresioa. Daniel Boorstin-ek bere *The Genius of American Politics* (1953) liburuan amerikar Iraultzaren izaera iraultzaile bera ukatu zuen, europar zentsuan noski. Boorstin-en arabera Independentzia “esperientzia kolonialaren amaiera” besterik ez zen izan (Gordon, 1989: 676). Louis Hartz historialariak *The Liberal Tradition in America* (1955) liburuan azaltzen du gizarte kolonialean ez zela feudalismoaren esperientziarik bizi eta, hortaz, gizarte amerikarra “askatasunean jaio zen”. Hori dela eta, Hartz-en tesia haintzat hartzen badugu Jameson-en “errelikia feudalen suntsipen” tesia bertan bera geratuko litzateke. Berdina gertatu zen Becker-en Iraultza dualaren teoriarekin Robert E. Brown-en¹⁰ “klase ertaineko gizartearen” tesiarekin. Edota Beard-en konstituzioaren inguruko interpretapenarekin Brown¹¹ eta McDonald-en¹² lanekin (Young, 2011: 52).

Esan dudana bezala, eskola honetako historialariek kontsentsua azpimarratuko dute gizarte kolonialean. Honen inguruan nabarmenenak ditugu Boorstin eta Rossiter. Bi egile hauen artean, dena den, eztabaida handia egongo da kontsensu horren naturaltasunaren inguruan. Alde batetik, Boorstin-ek ez du kontsensu ideologiko bat defendatuko, haren arabera kolonoak pragmatismoa ideologiaren gainetik jartzen zutelarik (aurrerago azaldu dudanez, Boorstin-ek Iraultza bera ukatu zuen). Rossitier, beste aldetik, kontsensu ideologikoa defendatuko du bere *The Origin of the American Tradition of Political Liberty* (1953). Teoria honen arabera, kolonoek sortuko zituzten estruktura politikoak kontsensu ideologikoan oinarrituko ziren, oinarri horiek “legearen gorentasuna” eta “subjektuaren askatasuna” zirelarik. Rossiter-en tesi hau, denborarekin, *Neo-Whig* eskolaren oinarrietako bat izango da (Gibson, 2009: 16; Gordon, 1989: 678).

Consensus eskolako beste historialari nabarmenena (nagusia, Wood-en arabera) Edmund S. Morgan izango da. Honek liburu serie bat idatzi zuen, Boorstin-ek eskatua, *The Birth*

¹⁰ *Middle Class Democracy and the Revolution in Massachusetts, 1691-1780* (1955)

¹¹ *Brown, Charles Beard and the Constitution: A Critical Analysis of “An Economic Interpretation of the Constitution”* (1956)

¹² *We the People: The Economic Origins of the Constitution* (1958)

of the Republic 1763-1789 zeinean Iraultzaren inguruan jorratzen zen. Liburu serie honetan Morgan-ek *Progressive*-en ideia nagusi baten aurka egingo du, ideien kritikarena. Gorago azaldu dudana bezala, Becker eta Beard-ek ideien aurka egin zuten (ideiak Iraultzaren motor eta kausa bezala ulertuak, noski) propaganda hutsa edo interes ekonomikoen arrazionalizazioetat hartuz. Morgan-ek, aitzitik, defendatuko du eliteak bere interes pertsonalak ere bilatzen bazituztela ere, azkenean interes horiek izango ziren, hain zuzen ere, printzipio horietara eramango zituztenak (Young, 2011: 54). Bestalde, “Stamp Act” krisiaren (1765) inguruan egingo zituen ikerkuntzek, bere emakumearekin argitaratuko zuen liburu batean idatziak¹³, konklusiora eramango dute krisi honek ez zituela liderrak edo interes-taldeak sortu, baizik eta “printzipio konstituzionalak” (hau da, Locke-ren printzipio liberalak). Teoria hau sostengatuko da barne eta kanpo zergapenarekiko bereizketarik ez zelako eman eta ondorioz ez zen egon Becker-ek defendatu zuen elitearen ideien likidotasuna, haien beharren arabera aldatuko zena (Wood, 1966: 11; Young, 2011: 56).

Rossiter eta Morgan-ek hurrengo hamarkadan sortuko den eskolaren oinarriak ezarri zituzten. Eskola berri honek *Consensus* eskolaren kontserbadurismoak mahailaren gainean jarri zituen zenbait ideia (Rossiter-en kontsentsu ideologikoa eta Morgan-en printzipio konstituzionalak batik bat) hartuko ditu eta garatuko ditu. Eskola berri hau *Neo-Whig* eskola dugu.

Neo-Whig school (1960-1990)

1960ko hamarkadaren etorrerarekin eskola berri baten sorpena emango da, *Neo-Whig* eskola. Eskola hau ez da aurrekoarekiko haustura bat izango, jarraipen bat baizik. Horrela bada ere, ezberdintasun nabarmenak aurkitzen ditugu *Neo-Whig* eta *Consensus* historialarien artean, geroago azalduko den bezala. Gerra Hotzaren hasieran sortuko zen eskolaren xede nagusia (punturaino non bere izaera bera definitzen zuen) *progressive*-n teoriak bertan behera uztea bazen, *Neo-Whig*-en teoriak ez dute kutsu hain kontserbakorra izango, Iraultzak ekarriko dituen transformazioen inguruan ikertuz eta Iraultzaren izaera eraldatzailea aitortuz; *Consensus* historialariek Iraultza prozesu natural eta kontsensuan oinarritua zegoena bezala ikusten zuten bitartean, *Neo-Whig*-ek Iraultzaren erradikalismoa aldarrikatuko dute. Hala ere, esan dudana bezala eskola honen oinarri asko aurreko eskolako historialarietan aurkitzen ditugunez, ukaezina da honen eragina ikustea.

¹³ Edmund Morgan eta Helen Morgan, *The Stamp Act Crisis: Prologue to Revolution* (1953)

Horrela, eskola berri honek aurrekoaren espiritu “counter-progressive”-a izaten jarraituko du, askoz moderatuago bada ere eta matiz ezberdinak izango duena (Gibson, 2009: 33; Young, 2011: 66).

Neo-Whig eskolaz hitz egiten dugunean ia ia Bailyn-en eskolaz hitz egin behar dugu. Bernard Bailyn-en *The Ideological Origins of the American Revolution* (1964) eskola berri honen oinarriak ezarriko ditu. Liburu honetan Bailyn-ek Iraultzan zehar egin ziren ehundaka panfleto aztertu zituen eta azterketa honen ondorio bezala zera atera zuen: panfletoak kolonoen “beldurra” askatasuna galtzeko adierazleak dira. Egiatzko sentimenduen adierazlearen teoria hau *Progressive*-k planteatzen zuten propaganda teoriaren aurka egiten zuen. Bailyn-en arabera panfleto hauek ezin ditugu propaganda modernoaren kontzeptuarekin aztertu, baizik eta kolonoen beldurraren espresio zintzo bezala. Honek bere Iraultzaren ikuspegi ideologikoa konfirmatu zuen, Iraultza gatazka ideologiko, konstituzional eta politiko bat bezala ikusiz, XIX. mendeko *whig*-en perspektiba berreskuratu zuelarik (Young, 2011: 67-68).

Idea zaharrak berreskuratzen zuen bitartean, ere ideia berriak planteatu zituen Bailyn-ek bere liburuan. *Consensus* historialarien aurka eginez, Iraultzaren izaera erradikalean enfasia egin zuen. Beretzat Iraultzaren nukleoan erradikalismoaren ideiak zeuden; *Progressive*-k Iraultzaren erradikalismoa nahi gabea izan zen bitartean, Bailyn-entzako erradikalismoa Iraultza Bere izaeran zegoen (Young, 2011: 68). Bailyn-en liburuan aurkitzen dugun beste ideia nagusi bat, ere *Consensus* eskolaren planteamenduen aurka egiten duena, Iraultzaren transformazioa da. Erradikalismoa Iraultzaren parte zen heinean, honek gizartea transformatuko zuen. Baina Bailyn-en interpretapen ideologikoa ez zen mugatzen Iraultzaren gidarietara, Bailyn eta bere ikasleetako batek, Pauline Maier, jendetza berreskuratu zuten. Ordura arte jendetza mekanismo bat bezala besterik ez zen ikusten, guztiz deshumanizatua zutelarik. Bailyn eta Maier-ek “the mob” berreskuratu zuten, haien ideiak aztertuz eta Thomas Payne¹⁴ bezalako panfleto egileak aztertuz. (Young, 2011: 70)

Hala ere, Bailyn-ek bere ikuspegia aldatu egingo du 1960ko hamarkadaren amaieran, ziur aski garaiko testuingurua zela eta, bai gizartean zein unibertsitatean¹⁵. Aldaketa hau

¹⁴ Thomas Payne-n “Common Sense” (1776) maisulan bezala definituko du, Marx-en idatzien mailan egongo dena.

¹⁵ Harvard-en lan egiten zuen, eta han izango zen hain zuzen non 1968-1969 urteetan Bailyn-ek disturbioak biziko zituen: Dekanoaren artxiboen harrapaketa. Edo Columbiako Unibertsitatean ikasle ezkertiarrek “stablishment” historialarien lanak botako zituzten. Eta lista luze bat. (Young, 2011: 71)

punturaino helduko da non, erradikalismoaren aurka egingo zuen. Bere ikasleetako bat izango zen Bailyn-ek 60ko hamarkadaren hasieran planteatu zituen ideiak jarraituko zuenak. Bere izena George S. Wood zen (Young, 2011: 73).

George S. Wood, bere *The Creation of American Republic, 1776-1787* (1969) liburuan, Baylin-en interpretapen bera jarraituko du, hots, Iraultzaren oinarri ideologikoak. Hala ere, bere irakasleak ez bezala, Wood-ek ikusten zuen Baylin-en tesiaren arrakasta teoria sozioekonomiko baten beharraren adierazle bezala. Wood-ek, ez konfunditu, *Progressive*-n toeriak baztertzeko zituen, haren arabera ez baitzutelako ideien garrantzia kontuan hartzen. Hala ere, bere irakasleak ez bezala, errekonozitzen zuen ideien defentsan parte hartu zuten “beldurra”, “extrabagantzia” eta bestelako sentimenduak tentsio sozialaren adierazleak izan ahal zirela eta, ondorioz, ikertu egin behar zirela. Punturaino, non errekonozitu zuen: “...the Progressive historians in their preoccupation with internal social problems were more right than we have recently been willing to grant” (Young, 2011: 73).

Wood Iraultzaren amaierara, hau da, Konstituzioaren idazketara heldu zenean. Ia *Progressive*¹⁶ bezala definitu dezakegun konklusio batera iritsi zen. Haren arabera, Iraultzak ere ekarri zuen amerikarrek arteko borroka bat nork eskuratuko zituen “independentziaren fruituen” inguruan. Horrela, Wood Baylin-en *Neo-Whig* interpretapena eta *Progressive* interpretapen arteko sinbiosi bat egiten saiatu zen, hots, ideiak eta interesak bere interpretapenaren ekuazioan sartu zituen (Young, 2011: 73; Gordon, 1989: 685).

Nahiz eta 1970ko hamarkadatik aurrera *New Left* interpretapenak *Consensus-Neo-Whig* interpretapenak gailendu, hauek sartu zituzten ideia nagusiak oraindik aurki ditzazkegu historiografian zein gizarte estatubatuarrean, hori delarik haien arrakasta nagusia, Iraultzaren kontaketa publiko masiboan (ez, berriz, akademian) haiek irabazi dute.

2.4. Progressive-en semeak: *New Left* eta *New Social History*

Gerraosteko korrante historiografiko nagusiak *Consensus* eta *Neo-Whig* izan arren, mende hasierako *progressive*-n ondareak oraindik bizirik jarraitu zuen mundu akademikoan. 1950ko hamarkadan zehar hainbat historialarik interpretapen zaharrei eutsi egin zieten; hauetariko gehienak “zaharrak” izango dira, hau da, *progressive* eskolaren

¹⁶ Ia *progressive* bezala definitu ahal badugu inolaz ere ez du Beard-en teoria jarraituko. Bau, ordea, Jameson-ena.

garaian formakuntza jaso zutenak (bigarren eta hirugarren belaunaldien parte izanik), nahiz eta historialari gazteak ere aurkituko ditugun. Lehenengo taldearen adibide ditugu, Richard B. Morris, Benjamin Quarles, Merrill Jensen¹⁷ edo Curtis P. Nettels. Hauek argitaratuko dituzten lanak hurrengo hamarkadetan garatuko diren ideien aurrekaritzat hartu dira maiz. Benjamin Quarles-en *The Negro in The American Revolution* (1961) edo Morris-en *Government and Labor in Early America* (1946) horren adibide direlarik¹⁸ (Young, 2011: 60-63). 1960ko hamarkadan sartu ziren indartsu Iraultzaren inguruko interpretapen ezkertiarak, *New Social History* eta *New Left* eskolen eskutik.

1960ko hamarkadan historiografian hedatu zen “komunitateen” inguruko interesarekin, ez zen bakarrik ikerketen fokua aldatu, baizik eta Historiaren “ahaztuak” berreskuratzu ere (emakumeak, beltzak, langileak) metodologian aldaketa gertatu zen. Europatik zetozen influentziak zirela eta, bereziki frantziar eta britainiar marxisten partetik, hamarkada honetako historialari berriek metodologia kuantitabista bat sartuko dute. Metodologia honekin, historialariek haien ikerkuntzaren esparru geografikoa murriztuko dute, Frantziako eta “Cambridge group”-en *sixieme section* delakoaren eraginpean (Beeman, 1977: 425).

Metodologiaren aldaketarekin batera, korrante historiografiko berri hauek, Iraultzaren ikerketara hurbilduko direnean, ez dute haien fokua jarriko ideietan edo mentalitatetan, baizik eta mendeko talde sozialetan eta haien ekarpenean Iraultzan. Dimentsio honetan, eskola hauek “historiografia liberatzaile” espiritu bat hartuko dute. Azken honi dagokionean, kontuan hartu behar dugu eskola hauek garatuko diren testuingurua, hots, 60ko hamarkadakoa, *Civil Rights* mugimendua edota Vietnam-eko gerraren aurkako mugimenduaren garaia (historialari asko aktibistak izan zirelarik). Era berean, eskola hauetako historialariek defendatuko dute ezin dugula gizarte kolonial bateratu eta homogeen batez hitz egin, ordura arte egin ziren interpretapenak (bai *Whig*, *Consensus* eta *Neo-Whig* edota *Progressive*) WASP-ak (*White Anglo Saxon Protestants*) protagonista izan zutelarik. Menderatuak ziren talde sozialetan zentratuko den Historia “From the Bottom Up” idatziko dute (Gibson, 2009: 64-65; Unger, 1967: 1237).

¹⁷ *Progressive*-n atalean azaldu dudan bezala, hirugarren belaunaldiaren ordezkari nagusia izan zen.

¹⁸ Ere aipatu behar lirateke Robert R. Palmer-en lana, non Iraultza frantsesa eta estatubatuarra konparatu zituen, *Consensus* historialariak egin zuten moduan, baina ondorio ezberdinak ateraz; haren arabera Iraultza amerikarra frantsesa bezain iraultzailea eta erradikala izan zen. *The Age of the Democratic Revolution: A Political History of Europe and America. 1760-1800, 2 vols* 1959-64

Esan bezala, bi eskola garatuko dira garai honetan: *New Social History* eta *New Left*. Bi eskolek “From the Bottom Up” paradigma jarraituko badute ere, haien metodologia, iturri intelektualak eta fokua ezberdinak izango dira.

New Left (1959-1980)

Eskola hau 1959. urtean hasiko da, *Studies of the Left* aldizkariaren inguruan. Historialari gazteek sortuko dute, garaiko *Consensus* historiaren erreakzio moduan. *New Left* izendapena ezker zaharrarekin alderatzeko erabili zen, *progressive*-kin alderatzeko alegia. Izan ere, eskola berri honetako historialariak *Old Left*-arekiko distantzia mantendu nahi izango dute. Nahiz eta Iraultzaren inguruko ikasketetan Beard-Becker-Jameson trinomioaren lanak oinarri izan, *New Left*-eko historialariak “haratago” joaten saiatuko dira, maiz hauen interpretapenetatik aldenduz (Unger, 1967: 1242).

New Left-en interesen artean, eta *New Social History* eskolarekiko ezberdintasun nagusia izango dena, eliteen ikerketa izango da, honen inguruan arituko da William Appleman Williams. Williams, Beard-en jarraitzailea, eliteen inguruko *progressive* teoria hobetzen saiatuko da, lehen esan dudanez, “haratago” joanez. Haren arabera, Iraultzaren liderrak “gentry”-aren interes koalizio bat ziren, zeinak Britainiar Inperioarekin apurtzean bere Inperio merkantilista propioa eratu nahi zuten. Hala ere, lehenengo *progressive*-ak ez bezala, ez zuten batu interes ekonomikoa eta ideiak. Bere arabera ezin ziren banatu ekintza politikoa eta ekonomikoa, “askatasunaren ideia” batek sistema ekonomiko bat atxikitua duelarik (Young, 2011: 77-78).

Eskola honetako beste historialari garrantzitsu bat Staughton Lynd dugu, zeinak nekazari maizterrak eta dinamika urbanoak aztertuko dituen Iraultzaren Aroan (1776-1788). New York-eko Dutchess County-ko datuak erabiliz, aurkituko du zonalde horretako maizter eta erdi-klaseko “gentry”-en arteko aliantza bat egon zela *Loyalist*-en konfiskatutako lurren erosketan. Horrela, Jameson-en teoriari lur banaketaren inguruan funtza emango zion, bai ere Beard-en New York-eko Konstituzioaren aldeko babesa eman zien taldeen analisiari. Horretaz gain, *Neo Whig*-ek¹⁹ bezala “masa” berreskuratuko du. *Progressive* historialariak ez bezala, mekanika politiko kontzientek aurkitu zituen, geroago konstituzioaren eraketan interes mekanikak sorraraziko zituenak (Young, 2011: 78).

¹⁹ Kontuan hartu behar dugu bi eskola hauen garapena paraleloki eman zela eta hortaz bataren ikerketak besteeen eragingo ditu eta alderantziz.

Lynd-ek bere *Class Conflict, Slavery and the United States Constitution: Ten essays* (1967) liburuan Iraultzaren sintesi berri bat egingo du, aurrerago identifikatu zituen mekanikak biltzen zituen. Eraitza *Consensus* eta *Progressive*-n arteko erdibide bat izango da. Lehenengoei aitortuko die Konstituzioa kontsentsu elementu bat izan zela, eliteak masa kontziente horren beldurraren eraitza gisa. Bigarrenei dagokionean, Iraultza interes-talde ezberdinen koalizio bezala ikusiko du, guda nazional bat izango zen barne-gatazka bigarren plano batean geratuko zelarik. Hau da, Becker-en interpretapena proportzioak aldatuz (Becker-ek enfasi handiagoa egin zuen barne-gatazkan). Azkenik, bi elite ezberdinduko ditu, Iparraldeko kapitalistak eta Hegoaldeko plantazioen jabeak. Konstituzioa hauen arteko paktuaren eraitza izango litzateke, funtsean Beard-en interpretapenaren errebisioa delarik (Young, 2011: 83).

New Left-eko azken historialari nabarmenetarikoa Iraultzaren inguruan Jesse Lemisch dugu. Honen lana, Lynd eta Bailyn-en antzera, “masa” berreskuratzea izan zen, honen kontzientzia politikoa bilatuz. Bere “Jack Tar in the Streets: Seamen in the Politics of Revolutionary America” artikuluan, itsasgizonen parte-hartzea Iraultzan aztertu zuen, bereziki talde honen biolentzia. Indarkeriaren inguruan ondorioztatu zuen hau arrazoi politiko eta sozio-ekonomikoek bultzatu zutela (nahiz eta beste zenbait ekintza biolentoak besterik ez izan), eta nahiz eta ezin dugun talde honi kutsu ideologiko handi bat eman, ezin dugu ere hau “ideologikoki inerte” izan zela baieztatu (Young, 2011: 85; Lemisch, 1968: 405-407).

Lynd eta Lemisch bereziki iraultzaileak izango dira Amerikar Iraultzaren historiografian. Lynd-ek Klasea interes ekonomikoekin ordezkatzean, klase interesak eta klase subordinatuen interesak aztertuz, *Progressive*-en baino Iraultzaren interpretapen sofistikatua eta osoa eraikiko du. Lemisch-ek, bere partetik, jende-masaren ikasketa zelaia fundatuko du. Bailyn, Wood eta Maier-ek eraikiko zuten ebidentzia empirikoa Lemisch-ek handituko du. *Neo-Whig*-ek bakarrik “Crowd” *whig*-a ikusten zuten bitartean, Lemisch-ek honen dibertsitatea eta heterogeneotasuna defendatuko du, geroago ikusiko zen bezala (Young, 2011: 88).

New Social History (1965-1985)

Eskola honetako historialariak, *New Left*-ekin konparatuz, ez dira egongo Iraultzaren inguruko aspektu konkretuetan interesatuak, aldiz, haien atentzioa *longue durée*

prozesuetan jarriko dute. Hortaz, *New Social History*-ko historialariak gehiago zentratuko dira Iraultzaren jatorrietan haren garapen edo ondorioetan baino. Metodo kuantitatibo batetik, gizartearen aspektu ezberdinak aztertuko dituzte hala nola, demografia, gizarte estratifikazioa, gizarte estruktura edo gizarte mugikortasuna. Eskola honetako lehenengo belaunaldia izango zen oinarriak jarriko zituenak, komunitateen eta hiri-guneen gizartea aztertuz eta *longue durée* prozesu hauek Iraultzarekin lotuz. Bigarrena, jada *Neo Progressive* korrontean sartu beharko dugularik, 80ko hamarkadan garatuko dena.

Lehenengo belaunaldi honetako erakusle nagusiak James Hanretta eta Gary Nash izango dira. Hauek, zerga erregistroak, ondare inbentarioak eta txiroentzako laguntzak aztertuz, Hanretta Boston-en eta Nash New York eta Filadelfian, aurkituko dute Iraultza aurreko gizartea gero eta estratifikatuago bihurtzen ari zela, aberastasunaren kontzentrazioaren hazkundearekin (Price, 1976: 703-704). Nash-ek loturak egingo ditu errealitate hau eta hiriko politiken transformazioaren artean Iraultzan zehar, hirien erradikalismoa eta gatazka sozialak ulertuz estratifikazio sozial honen testuinguruan. Era berean, arraza sartuko du ekuazioan, esklabu jabetza edo natiboekiko harremanak aztertuz *Red, White and Black* (1974) liburuan (Young, 2011: 91).

Beste historialari nabarmenak ditugu Rowland Berthoff eta John M. Murrin, zeinek defendatuko dute XVIII. mendeko gizarte kolonialean feudalismoaren berpizkunde bat emango zela, Louis Hartz²⁰-en aurka eginez. Hartz-ek inoiz ez zela gizarte feudalik existitu kolonietan defendatzen bazuen, Berthoff eta Murrin-ek kontrakoa defendatuko dute. Hauen arabera, feudalismoa ez zen garatu XVII. mendean kolonietako garapena oraindik oso primitiboa zelako, ez askatasunaren espirtua zutelako. XVIII. mendean, feudalismoa garatzeko baldintzak agertu zirenean honen aurrerapen motel bat eman zen. Honek erantzun bezala izan zuen gero eta gizarte gatazken areagotzean, zeinak zenit bezala Iraultza izan zuten, Feudalismoaren hedapena geldituz betirako. Honek dimentsio berri bat eman zion Iraultzari transformazio, demokratizatzailea, kasu honetan bezala (Young, 2011: 93).

New Social History-ko historialarientzako agerikoa zen estratifikazio eta polarizazio sozial hau Iraultzarekin lotzea saihestezina zen. Nash eta geroago Kenneth A. Lockridge-
k lotura hau egingo zuten. Lockridge, ondorioztatu zuen XVIII. mendean ematen ari ziren aldaketak (biztanleria dentsitate gero eta handiagoa, presioa lur eta horniketean, migrazioa,

²⁰ Gorago aipatutako *Consensus* historialaria.

aberastasunaren kontzentrazioa eta diferentziazio sozialak, besteak beste) “Mundu Berria” pixkanaka “Mundu Zaharrea” bihurtzea eragiten ari zirela. Errealitate honek, haren arabera, Iraultzaren erretorikaren parte sustantziala izango dira, 1776 eta 1787 urteen artean emango den “demokrazia” eta “aristokrazia” arteko konfliktoan (Young, 2011: 94).

New Left-eko zein *New Social History*-ko historialariek ikertuko duten aspektu garrantzitsua “minorien” edo “zapalduen” historia izango da. Zentsu honetan, beltzen inguruko lan garrantzitsuak ditugu Winthrop D. Jordan-en *White Over Black: American Attitudes Toward the Negro, 1550- 1812* (1969) edo Duncan J. MacLeod-en *Slavery, Race, and the American Revolution* (1974). Emakumeen inguruko idazlan pioneroa dugu Mary Beth Norton-en *Liberty 's Daughters: The Revolutionary Experience of American Women 1750-1800* (1980). Ildo berean, natibo amerikarren inguruko ikerketak egin ziren ere, hala nola Barbara Graymont-en *The Iroquois in the American Revolution* (1972) edota James H. O'Donnell-en *Southern Indians in the American Revolution* (1973). Lan hauen bidez, Iraultzaren esperientzia WASP-en ikuspuntutik urrundu zen beste Iraultzak aurkituz eta talde hauen parte hartzea honetan gehiago ezagutuz (Shelby, 1994: 7).

1980ko hamarkadaren etorrerarekin, *New Social History* eta *New Left*-eko historialarien ondorengoak *Neo-Progressive* eskolaren inguruan batuko dira. Eskola berri hau gaur egun arte hegemonikoa izaten jarraituko du, bi mendeetako eztabaida historiografikoa amaituta dagoela dirudielarik (edo behintzat oraindik ez daukagu perspektiba historiko nahikoa bereizketarik egiteko).

3. Ondorioak

Amerikar Iraultzaren inguruan sortutako eztabaida historiografikoa XIX. eta XX. mendeetan zehar Historiaren (disziplina eta zientzia bezala) eta gizarte estatubatuarraren garapenaren erakusle dugu. Alde batetik, Iraultzaren narrazioan aldaketak ikusi ditugu metodologian, garai aurre-akademiko batetik hasita, zeinetan lehen mailako iturrien azterketa hutsean oinarritu zuten euren ikerketa, zehaztasun zientifiko gutxirekin eta ikuspegi kritikorik gabe, *New Social History*-ko metodo kuantitatiboan oinarrituz eta tokian tokiko azterketara mugatuz. Era berean, Estatu Batuetako Historiaren garapena ikusi ahal izan dugu, historialarien testuinguru soziala eta politikoak hauen ikuspegia aldatu duelarik.

Lan honen helburua, hurbilketa historiografiko oro bezala, ez da izan perspektiba edo interpretapen ezberdinak okerrak ala zuzenak diren esatea ezta ere gaur egun daukagun jakintzarekin iraganeko lanak alde batera uztea, baizik eta bi mendeetan zehar eman den ekoizpen historiografikoa identifikatzea eta ekoizpena bere testuinguruan kokatuz eta egun daukagun informazioarekin konparatu ostean, dituzten akatsak edo gabeziak aztertzea.

Iraultzak suposatzen duen sinbolismoa eta garrantzia gizarte estatubatuarrean XIX. mendetik egiten hasi zen mitifikazioaren ondorioa dugu. Mitifikazio hau, ikusi dugunez, historialari (zein historiazale) *whig*-en eskutik eman zen, hein handi batean “nation building” prozesuaren testuinguruan ulertu behar duguna (nazio guztiek heroiak behar dituzte). Mitifikazio honen berrikuspena egiten saiatu ziren gero *Progressive*-ak, neurri handi batean, lortuz. Iraultzaren berrikuspen honetan, Aita Fundatzaileek haien heroi izaera galdu zuten, elite ekonomiko interesatu *hutsera* baztertzuz.

Progressive-ek eragin zuten apurketak historiografian XX. mendeko ekoizpen historiografiko osoa baldintzatuko du. Nahiz eta 1950ko eta 1960ko hamarkadetan garatuko diren *Consensus* zein *Neo-Whig* eskolek tradizio historiografiko klasikoa edo *Whig*-a berreskuratuko duten, berreskurapen hau biziraupen laburreko *impasse*-an geratu zen, epe luzean bakarrik parentesi bat suposatu zuelarik XX. mendeko historiografian.

1950ko eta 1960ko hamarkadetak historiografiaren erreakzio moduan agertuko ziren tradizio historiografiko berriak, *New Left* eta *New Social History*. XX. mendeko hasierako eskolaren espiritu kritikoa Iraultzarekiko berreskuratuko zuten, hauek, dena den, *Progressive*-ek landu ez zituzten ikerketa zelai berriak hartuko zituzten metodologia berriak aplikatuz eta ikuspegi berriak sartuz. Horrela, gizarte kolonialaren dibertsitatea aurkituko dute, tokian tokiko kasuak aztertuz eta klase zein arraza edo genero ezberdintasunak kontuan hartuz. Ildo horretan jarraitu du gaur egun arte garatu den historiografiak. Iraultzan baztertuak edo Iraultzaren ondoren eman ziren aldaketa politikoen onuretatik at geratu zirenak historialarien atentzio eskuratu dute; Countryman-en hitzetan “*the republic that the Founders created did not suit everybody’s needs equally well*” (Nobles, 2011: 262).

200 urteko historiografiaren ondoren, gaur egun daukagun irudia Iraultzaren inguruan askoz ere konplexuagoa, eta era berean erakargarriagoa dugu. Perspektiba ezberdinak batuz –hiri nagusietatik landara, plantazio jabeetatik esklabu berara, hiri elitetik langilera,

“from the top down”-etik “from the bottom up”-era, kolonoen ikuspuntutik britainiarren ikuspuntura – gaur egun daukagun ezagupena zabala da, Iraultzaren inguruan daukagun irudia inoiz baino errealistagoa eta historikoki *zuzenenagoa* izanik.

Bibliografia:

- Beard, C. (1913). *An economic Interpretation of the Constitution of the United States*. Norwood Press. Norwood.
- Beeman, R. R. (1977). The New Social History and the Search for "Community" in Colonial America. *American Quarterly*. 29(4). 422-443 or.
- Cott, N. F. (1990). Coauthorship and the concept of Civilization. *American Quarterly*. 42(2), 274-300 or.
- Egnal, M & Ernst, A. J. (1972). An economic interpretation of the american Revolution. *The William and Mary Quarterly*. 29(1), 3-32 or.
- Gibson, A. (2009). *Interpreting the Founding. Guide to the enduring debates over the Origins and Foundations of the American Republic*. Kansas University Press. Lawrence.
- Gordon, C. (1989). Crafting a Usable Past: Consensus, Ideology, and Historians of the American Revolution. *The William and Mary Quarterly*. 46(4), 671-695 or.
- Hattem, M. D. (2017). The Historiography of the American Revolution: a timeline. Hemen eskuragarri: https://cdn.knightlab.com/libs/timeline3/latest/embed/index.html?source=19P0MD9TrV5Tx62DC3fImj_uNLA51AsnV6TmRu2fWdL4&font=PT&lang=en&initial_zoom=1&height=800 [2021/05/10 kontsultatua]
- Hattem, M. D. (2020). *Past and Prologue: Politics and Memory in the American Revolution*. Yale University Press. New Heaven.
- Hofstadter, R. (2012). *The Progressive Historians. Turner, Beard, Parrington*. Knopf Doubleday.
- Lemisch, J. (1968). Jack Tar in the Streets: Seamen in the Politics of Revolutionary America. *The William and Mary Quarterly*. 25(3). 371-407 or.
- Messer, P. C. (2002). From a Revolutionary History to a History of the Revolution: David Ramsay and the American Revolution. *Journal of the Early Republic*. 22(2), 205-233 or.
- Morgan, E.S. (1958). *The American Revolution: A Review of Changing Interpretations*. Macmillan. New York.

- Nobles, G. H. (2011). Historians Extend the Reach of the American Revolution. In Young, A. F. & Nobles, G. H. (2011). *Whose Revolution Was It? Historians Interpret the Founding*. New York University Press. New York.
- Pilcher, G. W. (1972). William Gordon and the History of American Revolution. *The Historian*, 34(3), 447-464 or.
- Poulson, B. W. (1981). *Economic History of the United States*. Macmillan. New York.
- Price, J. M. (1976). Quantifying Colonial America: A Comment on Nash and Warden. *Journal of Interdisciplinary History*, 6(4), 701-709 or.
- Ray, R. (2001). *A People's History Of The American Revolution: How Common People Shaped the Fight for Independence*. The New Press. New York.
- Shelby, J. E. (1994). Revolutionary America: The Historiography. *OAH Magazine of History*. 8(4). 5-8 or.
- Unger, I. (1967). The “New Left” and American History: Some Recent Trends in United States Historiography. *The American Historical Review*. 72(4). 1237-1263 or.
- Woods, G. S. (1966). Rhetoric and Reality in the American Revolution. *The William and Mary Quarterly*, 23(1), 3-32 orr.
- Wright, E. (1968). Recent Interpretations of the American Revolution. *Jahrbuch für Amerikastudien*, 13, 43-52 or.
- Young, A. F. (2011). American Historians Confront: The transforming hand of the revolution. In Young, A. F. & Nobles, G. H. (2011). *Whose Revolution Was It? Historians Interpret the Founding*. New York University Press. New York.

